

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 303/2020 Erabakia, uztailearen 7koa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren zerbitzuan ari diren langileen eta kargu publikoen ordainsariak ehuneko 2 handitzea 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin**

Ordainsariak direla-eta funtzio publikoan indarrean dagoen lege araubidea hauexek arautzen dute: enplegatu publikoaren oinarrizko estatutuaren testu bateratua onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legeak, haiek garatzen dituzten hainbat arauk, eta, bereziki, Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsarien uztailearen 30eko 207/1990 Dekretuak.

Arau horiekin bat etorritik, oinarrizko ordainsarien (soldata, hirurtekoak eta aparteko ordainsariak) zenbatekoa Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak zehazten ditu, destino-osagarriaren zenbatekoa Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legeak, eta berariazko osagarria eta ordainsari osagarriak Euskadiko administrazio publikoek.

Urtarrilaren 21eko 2/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez, sektore publikoko ordainsariekin lotutako presako neurriak onetsi ziren.

Errege Lege Dekretu horrek zioen azalpenean adierazten duenez, 2018ko aurrekontuen luzapen egoerari gaur egun eusten zaionez, beharrezkoa da arau hau onestea, berekin baitakar sektore publikoko langileen ordainsarien igoera, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Hain zuzen ere, 3. artikuluko 2. apartatuak honela dio:

“2020an, sektore publikoan lan egiten duten langileen ordainsariak ezingo dira handitu oro har ehuneko 2 baino gehiago, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean, konparatzen diren bi aldietan homogeneotasunez jokatzeko, hala langile kopuruari nola haien antzinasunari dagokionez”.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako zuzendariaren otsailaren 4ko 20/2020 Ebazpenak xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen lansarien 2020. urterako igoerak onesten dituen erabakia argitaratzea. Erabaki horren hirugarren apartatuan finkatzen da zenbatekoa izango den 2020ko destino-osagarria.

Abenduaren 17ko 24/2019 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren 2020rako aurrekontua gauzatzekoak, honako hau ezartzen du 25.1 artikuluan:

“Arabako Foru Aldundiko, foru erakunde autonomoetako eta foru sozietate publikoetako, foru fundazioetako eta foru partzuergoetako langile funtzionarioen eta lan kontratudun langileen 2020rako ordainsari osoak foru arau honetan ezarritakoaren arabera handituko dira, 2019ko abenduaren 31n indarrean zirenen aldean, konparatzen diren bi aldietan homogeneotasunez jokatzeko, hala langile kopuruari nola haien antzinasunari dagokionez, eta, betiere, Estatuaren oinarrizko legedian ezarritako mugak gainditu gabe”.

Foru Arau horren 25.3 artikulua, halaber, hau xedatzen du:

“Foru kargu publikoetan ari diren pertsonen ordainsariei enplegatu publikoen ordainsarientarako ezartzen den gehikuntza ehuneko bera aplikatuko zaie 2020ko ekitaldian, produktibitatea barne. Nolanahi ere, ordainsari horiei uztailearen 11ko 10/2018 Foru Arauak, foru kargu publikoetan aritzea arautzen duenak, xedatzen duena aplikatuko zaie”.

Aurrekontu zuzkidura nahikoa dagoenez gero, bidezkoa da Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren langileen eta kargu publikoen ordainsariak ehuneko 2 gehitzea, 2019koen aldean.

Gauzatu da langileen ordezkarietako negoziazioa.

Arabako Lurralde Historikoko aurrekontua gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen aurretiazko fiskalizazioaren aldeko 508/2020 zenbakiko txostena.

Erakunde autonomoko estatutuen 13.2.f) artikulua dioenez, Administrazio Kontseiluari dagokio Foru Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onets ditzan, erakunde horretako langileen lan baldintzei buruzko proposamenak. Funtzio publikoaren arloan eskumenak dituen sailarekin koordinatuko da horretarako, eta alde aurretik langileen legezko ordezkarietako bilduko da dagokion negoziazio mahaian.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak adierazitako datan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoaren zerbitzuko langileen eta kargu publikoen ordainsariak ehuneko 2 gehitzea, 2019koen aldean, 2020ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Bigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organoaren beraren aurrean; hori guztia honako hauek xedatutakoaren arabera: Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 7a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**